



Arartekoaren 2023R-388-23 EBAZPENA, 2023ko uztailaren 20koa. Honen bidez, Getxoko Udalari gomendatzen zaio segurtasuneko, osasungarritasuneko eta ingurumena babesteko neurriak betetzeko kontrol-lana bultzatzea dezala Aixerrotako paellen nazioarteko lehiaketa ospatzean.

Aurrekariak

Aixerrota inguruan bizi diren pertsonen talde batek kexa egin dio Arartekoari, Getxoko Udalak ez baitu jarduten hirigintzako eta ingurumeneko arauak bete daitezkeen kontrolatzeko, Getxoko Aixerrotako zelaietan urtero egiten den "paellen nazioarteko lehiaketa" deritzan jai-ekitaldian.

Kexagileek azaldu dutenez, jai hori bi eremu bereizitan egiten da azken urteotan. Alde batetik, Itsas Argia elkarteak paella-lehiaketa antolatzen du udal jabetzako lursail batean, Getxoko Udalaren baimenarekin. Bestetik, pertsonen talde batzuek lehiaketa horren ordezkari ekitaldi bat burutzen dute jabetza pribatuko aldameneko lursailean, jendeak "Bronx" deitutakoan.

Kexan azaldu dutenez, ordezkari ekitaldi horretan parte hartzen dutenek zenbait eraikuntza eta etxola jartzen dituzte aldi baterako, eta jai-ekitaldiarekin batera, ingurumen arloko kalteak sortzen dituzte horiek kokatuta dauden inguru naturalean. Getxoko Udalak ez ditu modu egokian gauzatu ekimen pribatuko jardura hori kontrolatzeko dituen udal eskumenak.

Zehazki, kexagileek aipatu dute 2022. urtean hainbat lagunek Getxoko Udalari salaketa jarri ziotela, ordezkari jai-gune horretan etxolak jasotzeko orduan lurra aldatzeak sortzen zituen ingurumen-arazoengatik, izan ere, zulaketak eta zangak egin behar ziren, eta sastrakak moztu; gainera, jolas jardueraren ondorioz, eremu horretan hondakinak sakabanatuta geratzen ziren.

Kexagileek bidalitako informazioan adierazi dute informatzeko bilera bat egin zutela Getxoko Udalarekin, eta bertan jakinarazi zitzaizela udalak zer jardura adostu zituen ekitaldiaren ospakizunaren eragina minimizatzeko. Kexagileek onartu zuten 2022an antolatutako ekitaldian, proposaturiko neurrien bidez, lortu zela egoera hobetzea.

Hala ere, beraien ustez, hurrengo ospakizunei begira, udalak gehiago esku hartu behar du osasungarritasun, segurtasun eta, bereziki, ingurumena babesteko arauak betearaz daitezkeen, ordezkari jardura horren eragina prebenitzeko eta zuhaixka-





eremu bat eta kostaldeko txilardiak kontserbatzean sortzen dituzten ingurumenkalteak behar bezala konpon ditzaten eskatzeko, izan ere, habitat hori interes komunitariokoa da eta eremu babestuan kokatuta dago, hegaztiak han habia egiten dutelako.

Azken batean, kexagileek Arartekoari eskatu diote Getxoko Udalarekin esku har dezala, ordezkari ekitaldi hori behar bezala kontrolatuko dela bermatzeko, aintzat hartu beharreko interes publiko eta pribatuekin bateragarria izan dadin.

Kexa hori behar bezala izapidetzeko, 2023ko martxoaren 6an, Arartekoak Getxoko Udalarari idatzi eta informazioa eskatu dio Aixerrotako eremu pribatu horretan jai-ekitaldia ospatzea baimentzeko udal administrazio horrek egin dituen jardueri buruz.

2023ko martxoaren 23an, Arartekoak Getxoko alkatearen lehen erantzuna jaso du. Honela dio:

“2022. Urtean udal honek ez zuen inolako ekitaldirik baimendu, ez baitzen inolako eskaerarik aurkeztu. Herritarren Segurtasun Arloak, Azpiegitura Arloak, nahiz Hirigintza Diziplina, Kudeaketa eta Plangintza Arloak egindako txostenen kopia helarazten dizut, zeinak Bizkaiko Probintziako Fiskaltzari igorri baitzaizkio.

Aurtengo egoerari dagokionez, aurreikusten da udalaren jabetzakoa den espazioan egitea Ixtas Argia elkarteak antolatutako ekitaldia; izan ere, elkarte horrek eskatu ohi du baimena eta baimen horretan jasotako baldintzetara egokitzen du ospakizuna.

Espazio pribatuari dagokionez, udal honek, jende ugari pilatzeko aukera dagoela jakinda, segurtasuna hobetzeko eta eragin daitezkeen ingurumenkalteak murrizteko jarduketak gauzatuko ditu”.

Gero, 2023ko uztailaren 18an, Arartekoko ordezkari batzuek bilera egin dute Getxoko Udaleko Herritarren Segurtasun, Azpiegitura eta Kultura arloetako arduradunekin, kexan azaldutako gaiez hitz egiteko.





Bilera horretan, erakunde honi jakinarazi diote udal administrazio horrek zer neurri adostu dituen lehiaketa hori 2023an ospatzen denean, ordezeko eremu horretan segurtasuna, ingurumenaren babesa eta garbitasuna areagotzeko.

Esku hartzeko neurri horien artean, udalak seinaleak jartzeko lanak sustatu ditu babestu beharreko eremu naturaletan, hala nola pinudi-basoan eta kostaldeko txilardietan. Segurtasunaren ikuspuntutik, larrialdi-zerbitzuak eta garbiketa-kamioiak sartzeko eremu bat gaitu da, eta argi eta ur guneak jarri dira.

Garbiketa bermatzeko, edukiontzi gehiago eta sortutako hondakinak biltzeko gune gehiago jarri dira. Ekitaldia amaitutakoan, udalak aurreikusi du sakabanatutako hondakinen gaikako bilketa egitea eta, gero, etxolen eraikuntza-osagaiak kentzea.

Bitartekaritza-neurriei buruz, Getxoko Udalak lantalde bat dauka, bideetako ingeniari batek eta gizarte-hezitzaile batek osatua, ordezeko jaian parte hartzen duten koadrilekin bitartekaritza- eta solaskidetza-lana egiteko. Lantalde horrek informatzeko eta kontzientziatzeko lana egiten du, egiturak seguruak izan daitezen, horiek eremu babestuetan jar ez daitezen eta eraikuntzan zementua erabil ez dadin. Era berean, bitartekaritza-taldeak sustatzen du sortutako hondakinak arduraz kudeatzea. Kontzientziazio horren emaitza gisa, udalak adierazi du iazko edizioan koadrila batzuek garbiketa-lanetan parte hartu zutela ordezeko eremuan.

Orobat, udalak jakinarazi du Udaltzaingoak bere eginkizunak beteko dituela pertsonen segurtasuna zaintzeko eta proposatu diren minimizazio-neurriak betearazteko.

Bestalde, 2023ko uztailaren 19an kexagileek Arartekoari adierazi diotenez, Getxoko Udalak bilera batean jakinarazi die zer neurri gehigarri adostu diren 2023an ordezeko ospakizun horren eragina murrizteko; horien artean nabarmentzekoa da zementua erabiltzeko debekua, etxolak eraikitzen direnean. Nahiz eta onartzen duten neurri horiek modu egokian gauzatzea lagungarria izan daitekeela inguruan kalteak gutxitzeko, beraien iritziz, neurri horiek, borondatezkotasunean oinarritutakoak, baliteke nahikoak ez izatea ordezeko jaia ospatzeak ingurumenerako dituen arriskuak eragozteko.

Gai horren gainean, salatu dute neurri horietakoren bat ez dela bete 2023ko uztailaren 25erako aurreikusita dagoen ekitaldi horren aurreko egunetan.





Horregatik, kexagileek behin eta berriz eskatzen dute udalak esku har dezan, bertako flora eta fauna eraginkortasunez babesteko, adostutako segurtasun-neurriak zaintzeko. Era berean, proposatzen dute hurrengo ospakizunetan Getxoko Udalak jai-etxolak jartzen diren eremuaren antolamendua eta kontrola bultzatzea.

Kexan azaldutakoa eta Getxoko Udalak bidalitako informazioa aztertu ondoren, Arartekoari bidezkoa iruditu zaio honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Kexaren bidez azaldu nahi da Getxoko Udalaren esku-hartzea beharrezkoa dela Getxoko Aixerrotako zelaietan urtero egiten den paellen nazioarteko lehiaketan hirigintzako eta ingurumeneko arauak bete daitezela kontrolatzeko.

Aurrekarietan aipatzen denez, Getxoko Udalak zehatz-mehatz azaldu ditu orain arte sustatu diren neurriak, zeinak baliagarriak izan baitira jabetza pribatuko ordeko eremuan, pertsona talde batek bere kabuz egiten duen jolas-jarduerak sorturiko eragina murrizteko.

Horren inguruan, Arartekoak ontzat jotzen ditu ordeko jai-ekitaldiak sortutako arriskuak gutxitzeko eta ingurumen-kalteak minimizatzeko asmoz udalak adostu dituen neurriak. Bereziki nabarmentzen du udal zerbitzuek jarduera horren sustatzaileekin egiten duten bitartekaritza-lana, lagungarria izan baita lursaila erabiltzeko eskakizun batzuk ezartzeko eta instalazio seguruagoak eraikitzeko, baita ere garbiketan eta hondakinak kentzeko lanetan gazteen konpromisoa bilatzen ahalegintzeko.

Hori dela eta, Arartekoak adierazten du udalak esku hartzeko dituen neurriak eta horiek betearaztea araututako jarduera-eremua dela, hirigintzan edo ingurumenean eragiten duen edozein jarduera baldin bada.

2. Eremu horietan, botere publikoen jarduera (kontrola eta legezkotasunera egokitzea eskatzeko) ordena publikoko gaia da, legeriak administrazio publikoei ematen diena, interes orokorra defendatzeko eta legeriatik eratorritako betebeharrak beteko direla bermatzeko.

Alde batetik, hirigintza-legezkotasuna kontrolatzeari buruz, hauxe zehaztu beharra dago: lursail pribatuetan instalazioetarako edo hirigintza-erabilerarako egiten diren





lan guztietan, nahiz eta behin-behinekoak izan, aldez aurretik bete egin behar dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko aurreikuspenak.

Beste alde batetik, ingurumen-legezketasunaren arloan, administrazioari esku har dezan eska dakioke inguru naturalean kalteak edo eragina sor ditzaketen jolas-jardueren egokitasuna bermatzeko, 10/2021 Legeak (abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena) ezarritako xedapenen arabera.

Orobat, aipatzekoak dira 10/2015 Legeak (abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena) zer eskakizun ezartzen dituen ikuskizunak edo jolas-jarduerak egiteko aldi baterako instalazioez edo egiturez, eramangarriez edo desmuntagarriez. Lege horrek eskatzen du berma dadila instalazio horiek parte-hartzaileentzat segurtasun, higiene eta erosotasun baldintzak betetzen dituztela.

Ingurumen-kontrol hori egiteko, ezinbestekoa da eskatutako neurri zuzentzaileak betetzen ote diren ikuskatzea eta aurretiaz finkatu diren ingurumen-kalitateko helburuak behar bezala betetzea.

Horrela, ondorioztatu behar da etxola desmuntagarriak jartzen diren jolas-ekitaldiak ospatzen direnean, nahiz eta eremu pribatuan antolatutako jarduera partikularra izan, Getxoko Udalak ingurumen- eta hirigintza-diziplinako eskumenak gauzatu behar dituela. Eskumen horiek 10/2021 Legean (abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena) eta 2/2006 Legean (ekainaren 30ekoa, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa) araututa daude.

3. Komeni da zehaztea, hirigintza- eta ingurumen-legezketasuna ikuskatu eta kontrolatzeko eskumen horiekin batera, Getxoko Udalak eskumenak dituela, halaber, horrelako jolas-jardueren erregulazioa eta antolamendua sustatzeko, tokiko idiosinkrasia bera kontuan hartuta.

Hori dela eta, 2/2016 Legeak (apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa), 17. artikuluan, ezarri beharreko legerian ezarritakoaren esparruan, udalerriei eskumenak aitortzen dizkie hainbat arlo arautzeko: besteak beste, espazio publikoetako bizikidetza-harremanen antolamendua; espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatzen diren ekintzetako segurtasuna; ingurumena babestea; hirigintza-antolamendua; edo establezimendu publikoen eta jolas-jardueren antolamendua eta kudeaketa.





Beraz, Getxoko Udalari dagokio udal ordenantza bat onartzeko premia eta egokitasuna baloratzea, oro har eta lege-esparrura erabat egokituta arautu dezan zer baldintza bete beharko lirartekeen behin-behineko etxolak jartzeko, horrelako jai-ekitaldiak ospatzen direnean. Arau orokor hori egiteko prozesua aukera ona izango litzateke, dudarik gabe, interesatutako talde eta pertsonen partaidetza errazteko, jai-ekitaldi hori seguru burutzearen eta hiri-inguru horretan ingurumena behar bezala babestearen arteko harmonia bilatzeko orduan.

Herritarren partaidetza egokia sustatzeko tresnen artean, aipagarria da parte hartzeko foro bat bultzatu daitekeela, ingurumeneko balizko arriskuak errazago prebenitzeko eta sor litezkeen kalteak errazago konpontzeko.

Edonola ere, parte-hartzeak ez du gutxitu behar udalak legezkotasuna kontrolatzeko eta ikuskatzeko dituen eskumenak gauzatzea. Eskumen publiko horiek nahitaez bete beharrekoak dira eta, beraz, ez daude transakzio edo akordio baten mende.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak gomendio hau egiten du:

Gomendioa

Arartekoak Getxoko Udalari gomendatzen dio bere eskumeneko segurtasuneko, osasungarritasuneko eta ingurumena babesteko neurri guztiak betetzeko kontrol-lana bultzatu dezala Aixerrotako paellen nazioarteko lehiaketan.

Bereziki, gomendatzen dio eraginkortasunez berma dezala adostutako neurriak beteko direla pinudi-basoaren eta kostaldeko txilardien eremua babesteko, gaitutako segurtasun-eremuetatik igarotzea eta eremu horiek okupatzea eragozteko, eta instalazio desmuntagarriak lurzorua aldatzen edo kutsatzen duen eraikuntza-materialik gabe jasoko direla bermatzeko. Era berean, Getxoko Udalak neurriak hartu behar ditu etxolak jartzeaz arduratzen direnek, horiek erabili ondoren, lurzorua lehengoratu dezaten.

Orobat, jai-ekitaldi horren etorkizuneko ospakizunetarako, Arartekoak Getxoko Udalari iradokitzen dio balora dezala horrelako jai-ekitaldien ospakizuna udal ordenantza baten bidez arautzeko aukera. Horretarako, iradokitzen dio interesdunen artean parte hartzeko gune bat sustatu dezala.

